

---

## KIROL EGOKITUA

### 2. Praktika: Eztabaida

1.- Kirola instituzionalki antolatzeko 2 era desberdin dituzu ondoren. Bien artean aukera ezazu zure ustez egokiena dena eta arrazoitu ezazu zure aukeraketa:

A.- Minusbaliotasunaren arabera antolatutako kirol federazioak

B.- Ezgaituentzako kirolaren atala kirol bakoitzari dagokion federazioaren barne.

2.- Joko Paralinpikoei dagokionez, beheko 2 aukeren artean, zein iruditzen zaizu egokiena? Arrazoitu ezazu zure erantzuna:

A.- Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak aldi berean burutzea.

B.- Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak bata bestearen ondoren burutzea.

---

3.-

Oscar Pistorius hankak moztuak dituen Hegoafrikako korrikalari bat da. Atletismoko Nazioarteko Federazioen Elkargoak galarazi zion atleta arrunten ohiko lehiaketan parte hartzea, bere zangoetan itsatsita dituen karbono zuntzeko protesiek beste korrikalarietako abantaila ematen diotela argudiatuz. Berak helegitea aurkeztu zuen Pekingo Joko Olinpikoetan parte hartu ahal izateko.

Pistoriusek esan zuenez: "Helegite hau ez dut nigatik bakarrik aurkezten; baizik eta kirolari minusbaliatu guztien alde. Mailarik gorenean parte hartzeko aukera merezi dugu, baldin eta gure gorputzak ahalbidetzen badigute".

Pistoriusi (egun 21 urte ditu) 2 zangoak 11 hilabete zituenean moztu zizkioten, perone hezurrik gabe jaio baitzen. Berak dionenez, protesian egin dizkioten azterketak ez dira zuzenak eta protesiek ez diote bestetik inolako abantailarik ematen.

Izan ere, Atletismoko Nazioarteko Federazioen Elkargoak egindako txostenak dio protesi horiek abantaila adierazgarria eragiten dutela, ondorioz, hegoafrikarrak ez lukeela baimenik izan behar Pekinen parte hartzeko, ez eta erakunde honek antolatutako beste lehiaketaren batean ere.

Alemaniko Kirolaren Unibertsitateko Peter Bruggeman irakasleak egindako bigarren txosten batek ordea adierazi zuen protesi gabeko atleten egoera berberean (abantailarik gabe) zegoela Pistorius.

### Aurrekariak

Oskar Pistorius 1986ko Azaroaren 22an jaio zen Hegoafrikan zangoetan fibularik gabe. Jaiotzezko akats honen ondorioz hanka bakoitzean 2na behatzekin gelditu zen, hezur kalkaneo bat eta orpoa eta behatzak elkartzen zituen hezur batekin. 11 hilabete zituenean 2 hankak moztu zizkioten belaunaren azpitik. Bere haurtzaroan errugbi, waterpolo eta tenisera jolastuz hazi zen Oskar. 2004ko Urtarrilean bere eskumako belaunean min hartu zuen errugbira jolasten ari zela. Medikuek korrika egitea aholkatu zioten.

---

Entrenatzen 2 hilabete soilik zeramanean munduko markarik onena hobetzea lortu zuen. Ordura arte 12 segundo eta 20 ehunekotan zegoen eta berak 11'51n egitea lortu zuen bere jaioterriko lasterketa batean.

### Anputazioa eta protesiaren inguruko xehetasunak

Pistoriusek karbono zuntzez egindako, "J" itxurako eta *Cheetah Flex-Foot* izenez ezaguna den protesia erabiltzen du. Pala baten tankera duenez, *Journal of Applied Physiology* 2009ko Azaroaren 19an Pistoriusen "Blade Runner" gisa izendatu zuen. Weyanden eta Bundlesen lanak Pistoriusen cheetahko hankak aztertzen ditu. Belaunetik behera Pistoriusen zangoek korrikalari arrunta baten pisuaren erdia baino gutxiago dute. Hankak berriz ere bere lekuan bermatu ditzake beste korrikalariak baino azkarrago, arinagoak baitira, abiadura gehigarria erantsiz abantaila gisa. Weyandek eta Bundlesek adierazi zuten: "protesi honekin abiadura handira korrika egitea hanka arruntekin egitera alderatuz fisiologi ikuspegitik antzekoa bada ere, mekanikoki desberdina da". Behar metabolikoa eta erresistentzia zangoak osorik dituen korrikalari baten antzekoak dira.. Hala ere, abiadura handian doanean protesi arin horiek mugitzeko modua nahiko desberdina da. Abiadura motelean, ordea, (iraupen luzeko lasterketak) badirudi abantaila hori desagertu edo gutxitu egiten dela.

### Kirol ibilbidea

Pistoriusek Atenaseko Joko Paralinpikoetan (2004) parte hartu zuen. Bertan urrezko domina irabazi zuen 200 metroko lasterketan eta brontzezkoa 100mtakoan. Atletismoko Nazioarteko Federazioen Elkargoak (IAAF) debekatu egin dio lehiaketa libretan (gaituentzat) parte hartzea, bai eta 2008ko Joko Olinpikoetan, beste kirolarien aldean abantaila duela uste baitu. Helegitea jarri zuen Kirolaren arbitratze Epaimahaian (CAS) eta arrazoia eman zioten.